

Gure politika nazionala

Euskaldunon Egunkaria, 1997-09-16: 3.

Badirudi, bada, *barne* hitzak berez diskretasuna adierazten duela, batez ere legearekin zerikusirik duelako. Edozein hizkuntzatan berdin da. Ministerio mailan jartzen baduzu, ez dizut esaten derrigor Fouche gogoarazi behar dizunik, baina espetxea eta polizia ekartzen dizkigu gogora denbora luzean oposizioan ibili garenoi. Gauzak aldatu direnez gero, gaur jarri diguten Barne Ministroak beharbada ez du izan esperientzia bera, eta duintasun ilun horretatik alaitsu eta optimista hasi da politikaz eta alderdien etorkizunaz hitz egiten. Azti ikaslearen modura, gainera, dena esateko, zeren lur honetan okerrago loratzen den landarea politika da. Kasu honetan, berehala nahi izan du drama krudel bat interesak ematen jarri. Fruituak ez daude helduak, berak espero bezala. Madrilgo plazan bertan salduko zirela uste zuenean abeslari valentziar bat gurutzatu zaio bidean eta bota dizkio oraindik heldu behar zuten laranjak... *ETAren kontrako batasunak* hiru oinarri izango lituzke bere proiektu horrek: 1) arazo nazionala, 2) bertebrazioa eta 3) euskara. Arazo nazionala estatu espainolean, lautik zein da bertebratu behar dena? Unamuno eta Ortega y Gasset urrunegi daude, eta guretzat oker. Aztirako ikasten ari denak arinegi egin du nazioaren eta hizkuntzaren oinarri amankomuna. Gaurko nahi duen politikak mantsoago, diskretuago eta batez ere zuzenago behar luke joka. Ahalegindu daiteke gure mundu erreka apur bat gozaten: presoen auzia justiziaz bete eta senideen ardurak arintzen. Ez gara gure asmoak erakusten ari, gure Legebiltzarrarenak baino. Euskaldunon politika nazionala zabalhandiegi datorkio Barne Ministroari.